

ANIMALIEN ELIKADURARAKO GEHIGARRIEN EGOERA

SARRERA

Elikaduraren segurtasuna bermatzeko politika erkide berriak direla eta, gaur egun berrebaluatze-aroan daude animalientzako elikagaien formulazioan erabiltzen diren gehigarriak. Helburua da ziurtatzea kontsumitzaileen eta animalien osasuna, animalien ongizatea, ingurumenaren zaintza eta gehigarrien eraginkortasuna, betiere irizpide zientifikoetan oinarriturik.

ZER DIRA ANIMALIEN ELIKADURARAKO GEHIGARRIAK?

Animalientzako elikadurarako gehigarriak dira **lehengaiak ez diren** substantzia, mikroorganismo eta bestelako gai prestatuak, **nahita gehitzen zaizkienak** pentsuei edo urari, ondoren aipatzen diren funtzioetako bat edo gehiago lortze aldera:

- a) Pentsuaren ezaugarrietan eragin onuragarria izatea.
- b) Animalia jatorriko produktuen ezaugarrietan eragin onuragarria izatea.
- c) Txori eta arrain apaingarrien kolorean eragin onuragarria izatea.
- d) Animalien elikadura-beharrizanak asetzea.
- e) Animalia-produkzioak ingurumenean daukan eraginean eragin onuragarria izatea.
- f) Animalien produkzioan, jardueran edo ongizatean eragin onuragarria izatea, bereziki urdail-hesteetako floran edo pentsuen digerigarritasunean.
- g) Efektu kokzidiostatikoa edo histomonostatikoa izatea.

Garrantzitsua da nabarmentzea, definizioan ezarritakoaren arabera, gehigarri gisa erabilitako substantziak ezin duela, aldi berean, lehengai izan. Bestela esanda, produktu jakin bat baimendutako gehigarrien zerrendan baldin badago, produktu hori ezin da hartu/etiketatu lehengai balitz bezala.

Era berean, gehigarriak nahita gehitzen dira; hortaz, lehengaietan berez dauden substantziak (bitaminak, aminoazidoak, oligoelementuak...) ez dira gehigarritzat jotzen.

GEHIGARRIEN SAILKAPENA

Kategoriak	Talde funtzionalak
Teknologikoak	▪ Kontserbatzaileak
	▪ Antioxidatzaileak
	▪ Emulsionatzaileak
	▪ Egonkortzaileak
	▪ Lodigarriak
	▪ Gelifikatzaileak
	▪ Aglutinatzaileak
	▪ Radionukleido bidezko kutsadura kontrolatzeko substantziak
	▪ Antiaglomeratzaileak
	▪ Azido-erregulatzaileak
	▪ Siloetan gordetzeko gehigarriak
	▪ Desnaturalizatzaileak
	▪ Mikotoxina bidez kutsatutako pentsuen kutsadura-murritzaileak
Organoleptikoak	▪ Koloratzaileak
	▪ Aromatizatzaileak
Nutrizionalak	▪ Bitaminak, probitaminak eta efektu baliokidea daukaten kimikoki definituriko substantziak
	▪ Oligoelementuak edo oligoelementuen osagaiak
	▪ Aminoazidoak, horien gatzak eta baliokideak
	▪ Urea eta bertatik eratorritakoak
Zooteknikoak	▪ Digestio-laguntzaileak
	▪ Hesteetako floraren egonkortzaileak.
	▪ Ingurumenean eragin onuragarria duten substantziak.
	▪ Bestelako gehigarri zooteknikoak.
Kokzidiostatikoak eta Histomonostatoak*	

*Kokzidiostatikoak edo histomonostatoak ez diren antibiotikoak ez dira baimenduko animalien elikadurako gehigarri gisa.

GEHIGARRIAK ETIKETATZEA

Gehigarriak era argi eta ezabaezinean etiketatu behar dira, eta zenbait datu agertu behar dira, hala nola, honako hauek:

- a) gehigarriaren izen zehatza, baimenen arabera eta dagokien identifikazio-zenbakiarekin. Aurretik, zein talde funtzionaltakoa den kide den adierazi behar da.
- b) etiketatzearen arduradunaren izena eta helbidea.
- c) gehigarrien pisu edo bolumen garbia.
- d) erabilera-argibideak eta erabilera segurua izan dadin jarraitu beharreko gomendioak.
- e) lote-zenbakia eta fabrikazio-data.

Beste alde batetik, araudiak berariazko zenbait betekizun aipatzen ditu (bermearen gehieneko data, osagai aktiboaren izen zehatza, etab.), gehigarri talde ezerdinak (aromatizatzaileak, zooteknikoak, kokzidiostatikoak, entzimak, etab.) etiketatzean aplikatu behar direnak.

EGUNGO EGOERA. GEHIGARRIAK BERRIZ BAIMENTZEA

Animalien elikadurarako gehigarriak berraztertzen ari dira gaur egun. Egoera hori 2003an 1831/2003 Araudia indarrean sartzearen ondorio da, eta araudi horren helburu nagusia da animalien elikadurarako gehigarri guztiak ebaluatzea Europar Batasunean ezarritako elikadura-segurtasunerako irizpide berrien arabera.

Gaur egun erabiltzen diren gehigarri gehien jatorriko baimena 1970eko zuzentarauan dago oinarriturik. Bada, ikusirik segurtasunari, garbitasunari, ingurumenaren gaineko eraginari eta erabilera-baldintzei dagozkien segurtasun-irizpide berriak, beharrezkotzat jo zen aipatutako baimena eguneratzea.

Baimen berria emateko prozesuaren kronologia

- I. 1970ko azaroa: gehigarrien zerrenda jasotzen duen zuzentzarua argitaratu zen (hainbat aldaketa egin dira gerora).
- II. 2003ko urria: 1831/2003 Araudia argitaratu zen. Dauden **gehigarrien berri ematea beharrezkotzat** jo zen, ebaluazio berria egin artean merkaturatzen jarraitu ahal izateko.
- III. 2005eko azaroa: gehigarrien **berri emateko epea amaitu zen**. Orotara, **2600 gehigarriaren berri eman zen** (gehienak aromatizatzaileak dira).

- IV. 2010eko azaroa: **gehigarrien ebaluazio berria egitea eskatzeko epea amaitu zen**. Eskaerarekin batera, 429/2008 Araudian ezarritako informazioa biltzen zuen txostena aurkeztu behar zen. Txosten horren barruan honako hauek zeuden:
- I. Espedienteko datuen laburpena
 - II. Gehigarriaren identitatea, ezaugarriak eta erabilera-baldintzak; analisi-metodoak
 - III. Gehigarrien kaltegarritasun-ezari buruzko ikerketak
 - IV. Eraginkortasunari buruzko ikerketak
 - V. Merkaturatzearen ondoko jarraipen-plana
- V. 2010eko abendua: gehigarrien **behin-behineko zerrenda argitaratu zen**.
- o I. eranskina: baimendutako gehigarriak – gutxi gorabehera **1.250** gehigarri.
 - o II. eranskina: debekatuko diren gehigarriak – gutxi gorabehera 1.350 gehigarri.

Gaur egunera arte, ez da debekatu berrebaluatze-eskaerarik egin ez zuten 1.350 gehigarrietako bakar bat ere ez. Horretarako, beharrezkoa izango litzateke debekua egingo lukeen berariazko araudia argitaratzea; hortaz, azken gehigarri horiek, behin-behineko zerrendako II. eranskinean agertzen direnak, legearen barruan erabiltzen jarrai daitezke.

ONDORIOAK

- ✓ Aurreikusi da bere baitan berrebaluatze-ikerketak egiteko eta behin-behineko zerrendako I. eranskinean ageri diren 1.250 gehigarriei baimenak emateko hartzen dituen prozesuaren iraupena 5 edo 6 urte ingurukoa izango dela.
- ✓ Gerta liteke berrebaluatze-prozesu horrekin gehigarrien erabilera-baldintzak, kontzentrazioak eta gehienezko mugak aldatzen joatea.
- ✓ Era berean, gehigarriak baimentzen dituzten araudien ondoko argitalpenak ekarriko du gehigarrien etiketatzea aldi berean aldatzen joatea.

ERREFERENTZIAZKO OINARRIZKO ARAUDIA

- Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1831/2003 (EB) Araudia, 2003ko irailaren 22koa, animalien elikaduran gehigarriak erabiltzeari buruzkoa.
- Batzordearen 429/2008 (EB) Araudia, 2008ko apirilaren 25ekoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1831/2003 (EB) Araudia ezartzeko garapen-arauak xedatzen dituena, eskaerak prestatu eta aurkezteari eta pentsuetarako gehigarriak ebaluatzeari eta baimentzeari buruz.
- Batzordearen 242/2010 (EB) Araudia, 2010eko martxoaren 19koa, pentsuentzako lehengaien Katalogoa eratzten duena.
- Batzordearen 892/2010 (EB) Araudia, 2010eko urriaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1831/2003 Araudiko ezarpen-esparruaren baitan pentsuentzako gehigarritzat jo ezin diren zenbait produkturi buruzkoa.
- Batzordearen Aholkua, 2011ko urtarrilaren 14koa, zuzentarauak ezartzen dituena pentsuentzako lehengaiak, pentsuentzako gehigarriak, biozidak eta al baitarien sendagaiak bereizteko.
- Batzordearen 26/2011 (EB) Araudia, 2011ko urtarrilaren 14koa, E bitamina animalia-espezie guztientzako pentsuetan gehigarri gisa baimentzeari buruzkoa.
- 124/2009 (EB) Araudia, zehazten duena kokzidiostatiko eta histomonostatoen gehieneko kopurua elikagaietan substantzia horien transferentzia ekidinezin gisa helburu ez diren pentsuetan.
- 767/2009 Araudia (EB), pentsuen merkaturatzeari eta erabilerari buruzkoa.

LOTURA INTERESGARRIAK

- European Union Register of Feed Additives (Europako Batzordea)
- Feed Material Register (Sektorekoa)
- Ikastaroa: Aditivos para la Alimentación Animal. Isabel Marzo-ADIPREM